

## PARTAIDETZA SAILA

- Partaidetza saila:
- Aldaketa: parte hartzea eta gardentasuna.
  - ❖ Beharrezko baldintzak eta bitartekoak garatuko ditugula.
  - ❖ Herriko taldeekaz batera egingo dugula lan: euskalgintza, emakumeen taldeak, kultur taldeak, gazteria, adinekoak, auzo-alkate eta elkarteak.
  - ❖ Urteko aurrekontuak egiterakoan herritarren inplikazioa sustatuko dugu eta herritarren eskura jarriko ditugu kontuok (6 hilabeterik behin herriaren aurrean agerraldia egin).
- Helburuak:
  - ❖ Herritarren parte hartzea bultzatzea, herritarren eskubideak aitortuz eta beharrezko erabakiak, neurri eta tresnak zehaztuz.
  - ❖ Eragile edo elkarten parte hartzea sustatu, demokrazia parte hartzailea bultzatuz eta haien parte hartzerako eskubide eta tresnak arautuz.
  - ❖ Parte hartzea prozesu bat bezala hartu, helburuak argi adieraziz eta bertan parte hartzen duten pertsona eta talde guztiak ikasketa eta trebatze prozesu iraunkor bat moduan hartuz.
- Nola landu parte hartzea?
  - ❖ Herri edo auzo bateko bizilagunek dituzten beharrizan eta lehentasun nagusiak zeintzuk diren kolektiboki aztertzea eta adostea da parte hartze prozesu bat.
  - ❖ Prozesuan antolatu gabe dauden auzokide eta herritarrek eta herriko eragile desberdinek parte hartu beharko dute.
  - ❖ Partaide guztiak prozesuko eragile aktiboak eta esanguratsuak izan beharko dira; lan honetan antolatu gabe dauden herritarrak eragile bihurtzean arreta berezia jarri beharko zaio.
  
  - ❖ Hiru motatako eragileak aipatu nahi ditugu: **eragile sozialak** (emakume taldeak, auzo elkarteak, kirol taldeak, euskera taldeak, gazteen kolektiboak, jai batzordeak, ...), **eragile teknikoak** (udal teknikariak eta beste profesionalak: kultur teknikariak, hirigintzakoak, enpleguak,

zerbitzu sozialekoak, hezkuntzakoak, osasun arloko langileak,...) eta **eragile politikoak** ( arduradun instituzionalak: alkatea, zinegotziak... eta alderdi politikoak).

- ❖ Eragile eta herritar hauetako bakoitzak bere errealitate, denbora, helburu, sinesmen, sentimendu, bizipen eta egoera pertsonala izango du; errealitateen ikuspegi desberdin ugari eta oso alderatuak bat egin beharko dute prozesuan. Malgutasuna eta iraunkortasuna prozesuaren ezaugarri garrantzitsuak izan beharko dira. Planteatutako helburuetan, prozesuetan eta emaitzetan aldaketak gerta daitezkeen arren, prozesua aurrera joan beharko da metodologia ireki eta irmo batekin.
- ❖ Udaleko batzorde guztiak irekiak, zabalak, parte-hartzaileak eta erabakitzaileak izango dira: Bi eratako batzordeak egingo dira: ohiko **batzordeak**, sail bakoitzak udal eta eguneroko bere funtzionamendurako aztertu, informatu eta ebatziko dituen gaiak ateratzeko egingo direnak. Eta **batzorde erabakitzaileak**, alkateak, zinegotziek, teknikariak, eragile eta herritarrekin batera parte hartuko dute, herrian eragin eta garrantzi handia izan zitekeen gai, plangintza edo egitasmo baten inguruan informazioa eman, aztertu eta adostasuna lortuz, hau errespetatu izango da azkenik udaleko Osoko Bilkuran erabakia hartzeko.
- ❖ Udalak dituen parte hartze guneak identifikatu eta aztertu beharko dira herritarrak elkartu eta batzarrak egiteko, eta eragile zein talde desberdinekin bilerak egiteko.
- ❖ Udalaren oinarrizko eta funtsezko funtzionamendua herritarrei azaldu beharko zaie: sailak, jorratzen diren gaiak, erabakiguneak, iritzia emateko guneak,...